

BALOREZKO PROPOSAMENA

Hasteko, makina hau behar ez ditugun gauzei beste erabilera bat emateko aukera paregabea da. Makina honetan, bi bezero mota egongo dira. Makinak, bezero batzuk beraiek etxean erabiltzen ez dituzten gauzak botatzeko balio izango du diruaren trukean, baina aldi berean, beste bezero batzuk aurretik beste bezero batek botatako produktu horiek eskuratzeko aukera izango dute dirua sartuz. Honekin, batzuek diru-sarrera gisa lortuko dute ondasun horiek behin makinara botatzean eta beste batzuek berriz, beren beharrak asetuko dituzte.

Bezeroak espektatiba altuak izango ditu; izan ere, erabiltzen ez duen produktua sartzen duen bezeroak produktuaren truke dirua lortu nahi du eta horregatik, hori izango da eskatuko duena, hau da, dirua. Bestalde, gauza berriak erosteko dirurik ez duen bezeroak bigarren eskuko gauzak erosteko aukera izango du honi esker. Hilabete bukaeran, makinaren barruan geratuko diren jostailu zein objektu edo arropa horiek, hau da, soberakinak, behartsuei emango zaizkien GKE (ONG) baten bitartez eta horrela denen onerako izango den ekintza bat egingo dugu.

Honen beste helburuetako bat, ingurumenari erreparatuz gero, kutsadurari aurre egitea izango litzateke. Zabor pilaketa ugari egoten da gure inguruan, hori ekidingo duen garapen eredua martxan jarriko da, ekonomia zirkularra. Horren bidez, produktuak denbora luzeagoz erabiltzeko aukera luzatuko da, hau da, birziklaketa emango da eta bezeroa horretan parte hartzeko prest egongo da.